



AKELARRE - N. Basterretxea





EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.


Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



MAHATSHERRIKO ALDIZKARIA

2000ko uztaila/abuztua
24. zkia. 125 pzta.



MELA-MELA EGINDAKO
JAIAK SANTUTXUN



ZORTZI URTEZ HAIZE
TXILETARRAK
MAHATSERRIAN

PPK EUSKARAREN
AURKAKO ERASO
ORDUA JO DU



**KARMELO ELORRIAGA,
MAHATSERRIKO BASERRI
GIROA AKORDUAN**

betikoak



MEZATIK URTETAN

Antzinako kontuak aldean gatoz oingoan be, Eulalia Abaitua izan zanaren eskutik. Haren erretratu kameraren begitik joandako mahatsorrien barri dekoğu ehun urte beluago. Edo oindiño be gehiago, kasu honetan legez. Begoñako eleizea, lehengo torre zaharra oraindik zutunik, meza osteko paisajian. XIX. mendea akabuan. Neskatil gazteak pasioan galaiak begire dekoiezela. Domeketako erropa dotoreak jantzita, egun batez sikanen aste osoko biharrak ahaztuta, herritar guztien aurrean polit eta galant. Baserritarren herri txikian egun handia. Domeka, neke guztien sendatzaile, ametsen bultzagile.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskonet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Martínez,
Joana Etxebarria,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKE-
Tazioa:**
Iñaki Berastegi,

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez,
Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde,
Igor M. de Vidales,
Santutxuko Bertso
Eskola,
Igor Zorrozueta,
Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
BI-85-98

ALE KOPURUA:
1.000



▶ Betikoak2	▶ Mahatsberriak19
▶ Iritzia4	▶ Mendi Ibilbideak23
▶ Santutxuko Jaiak5	▶ Txiletarrak Mahatsherrian24
▶ Begoña eta Euskerea10	▶ Irakaskuntza26
▶ Oporretan.Zazpi Proposamen12	▶ Kultura: Eñaut Etxebarri.28
▶ Bakarka: Karmelo Elorriaga15	▶ Horoskopoa/Agenda30

Bedarra batuteko denborie neska-mutilok!, ta bedarra barik hamen arropa-zapatak batu, maletan sartu ta alde egitten dozue gehidxenok, ahal dozuenok behintzet. Ze, ondiñokarren baten bat lotuten da bedarra batuten, ta beste hainbat bedarra batuten dauenari konpañia egitten. Ta ha, bedarra batuten dabilela, ikusko dittuz eskapetan daurienak bariantean gora ta beheara, solotik ikusi bere. Ta eskapau ezin daurienak parkien gora ta beheara ta festarik festa, baie inori ez jako okurriduko bedarra batuten dabilenari laguntziñotxue egittie.

Eskerrak eta grasidkek bedarra batuten dabiltezenak Justugune deukiela. Justugunien bedarra soloan itxiko daurie, ondo batute, metatan edo soloan, ta Tetuanen batuko direz hareik eta beste batzuk, ta denboriek ixten badosku (Santutxuko festatan lez ez daittela pasau) hango bedarra zapalduko dogu egun guztidixen. Bedarra zapaldu ze, gero ta bedar gitxidxago eukiko dogu zapalduko, laster baten Mahatsherrian ez mahatsik, ez solorik ez bedarrak ibiliko gara ta. Eskerrak batzuek ondiñokarren bedarra batuten dauriela.

UDAL ITUNEN APURKETAK

Nahiz eta fisikoki EAJren jokabide politiko honen hasiera Durangon kokatu, erabaki larri honen jatorria eta funtsa beste nonbaiten kokatu beharra dago. Hartutako erabaki hau, 1.998ko udatik aurrera irekitako nazio eraikuntzarako ibilbidean zehar EAJ-k berau desitxuratu nahian emandako ondorio-urratsa da.

Azken bi urte hauek aurrera joan ahala, argi gelditu da EAJren barne dauden hainbat arduradun politiko zein goi mailako kargu instituzionalek, nazio eraikuntzaren ildotik egungo markoa gainditzeari baino, berau egonkortu eta indartzeari, ezker abertzalea marko zatikatzaile honen instituzioetan sartzeko presioari eta gatazkaren mami politikotik ihesbidean burruka armatuaren inguruko eztabaida faltsua zein ankamotza planteatzeari ekin diotela. Prozesua abiatu den neurrian, irekitako ibilbidearekiko EAJren desitxuratzearen ildo era praktikoa batez azaldu zen, esparru hoiek mantsotuz eta galgatuz, hainbat unetan kalkuladora elektoralera mahaigaineratuz, eta guzti hau ETAREN aldekarreko sutenen indarrean zegoelarik.

EAJren aldetik eragiten ari den udal itunen apurketa ezin da soilik azken asteotako testuinguruan aztertu, ezin da soilik ETAk sutenen hausteko hartutako erabakiaren itzalean kokatu, oso ondo neurturiko kalkulu politiko eta taktikoetan baino: Ezker Abertzaleak nazio eraikuntzari ekiteko erabakiortasuna baldintzatzea eta apustuaren mamia desitxuratzeko du helburu, eta horretara datoz, aitazaki gisa, udal itunen apurketak.

Hobe dugu abertzaleon eragin eta presioa politikoa Euskal Herriari herri gisa dagozkion eskubide demokratikoak ukatu, behin eta berriro irekitako ibilbidea zapuzten eta gatazka politikoa ez aitortzearen aldeko apustua egiten dutenengana bideratzea (itunak apurtu baino), eta horretarako gure indarrak era positiboan erabiliz lan bateratuaren bidetik munduko herrien multzoan Euskal Herria askea eraikitzea.

Ibon Arbulu

Herri Batasunako Mahai Nazionalako kidea.



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura



Mela-mela egindako jaiak Santutxun
Etenbagako zaparradek giroa moteldu arren auzo honetako festek milaka lagun batu zituzten

Testoa: Iratxe Ruiz

Argazkiak: Iñigo Azkona
Xabi Herrera

Kupida barik egin zuen euria. Lehenengo egunetik azken zapatu gauera arte. Eten laburrak eta osterara be zaparradea. Egitaraua oztopatu eta giroa moteldu bazuen ere, eguraldi zitalak ez zituen aurtengo Santutxuko jaiak trakestuz, are gutxiago eragotzi. Santutxun festak egin dituzte eta, etsai gaiztoak lehenengo urteetako gailurrera ailegatzeko biderik eman ez badu ere, ez dira makalak izan. Galdetu, bestela, bertón egon zirenei.

XX. mendeko Santutxuko azken jaiak izango zirenak hastera zihoazen. Uztailaren zortzia egun euritsua iragarri zuten eta halakoxea izan zen goiza. Arratsaldean pixkanaka atertu zen, baita Sangutxu eta fanfarrearen musikarekin batera eguzkia somatu ere. Dena den eguraldi kaxkarra ez da inoiz izan jaiarekin amaitzeko aitzakia Mahatserrian.

Karmelo plazatik eta Basarrateraino fanfarreak egindako ibilbidean nahiko jende gutxi bildu zen, baina pregoiaren irakurketan gehiago geunden. Santutxu hockey taldea izan da aurten pregoia botatzeko arduraduna eta bi jokalarik gaztetxo aritu ziren bozeramaile. Auzoko jaiari hasiera emateko ideiak pozez zein urduritasunez bete zituen gazteak.

Behin pregoia eta Santutxuko Jai Batzordearen mezua irakurrita txupinazioa izan zen. Orduan pregoia tolestu eta poltsikoan gorde zuten hockey jokalariek, oroigarri gisa eduki nahi zutelako.

Txosna gunean jai giroa hasi zen orduan. Behin hamarrak jota, Basarrate husten hasi zen, jendea afaltzeko ordua heldu zela antzeman bezain pronto. Hutsune hau hamar bat minutukoa izan zen, orduan gaztetxoek hasiera berbera hurbildu zirelako.

Orduak pasa ahala plaza jendez betetzen zihoan. Eguraldi epela baina giroa aldiz, bero-beroa zen. Bertan, garagardo eta kalimotxo katxien artean tankera guztietako pertsonak aurki genitzake: etxe-ko txikienetatik, hain gazteak ez zirenetara, gehien-goia osatzen zuten gazteak ere han pilatzen zirela.

Berbenaren musikak giroa alaitu zuen baina behin haien saioa bukatuta, txosnetako kanta izan ziren gazteen mugimenduen gidari. Kanten artean udako abestiak izan ziren dantzatuena, eskuak burura eta gerrira eramatera animatzen zuten doinuak, alegia.

Basarraten bederatzi txosna batu dira aurten, Santutxuko hockey zein futbol taldeena, Ikasle Abertzaleena, Gaztedi dantza taldearena, etab,... Txosnetan ez ezik, Sorgintxulo gaztetxean eta tabernetako kalean edo "zonan" giro apartaz gozatzeko aukera zegoen. Aitortu behar zenbait lekutan gehiegizko jendetza ere pilatu egiten zela.

JAIETAN MURGILDUTA

Lehenengo zapatuko gaugiro polita izan zen, baina hurrengo gauetan euria etsai ikaragarri bihurtu zen. Gauetan ez ezik, goiz eta arratsalde bezala hodei beltzek jai egitaraua baldintzatu zuten. Hala ere, ondoko argazkiak lekuko, ekitaldi asko burutu zen eta gauetako giroa ez zen makala izan. Topikoa inoiz baino egiazkoagoa eginez, santutxutarrak aurten jaietan murgildu dira, oso.



«Goian, ezkerrean, Sangutxu, jaietako maskota, BERTONeko irakurleei begira. Alboan, ikurriñaren alde eginiko kalejira. Behean, ezkerrean, bertso saioaren irudi bat eta haren ondoan sumo borrokariaren indarraren erakustaldia»





SANTUTXUKO JAIK 2000 -KO PREGOIA

Santutxutarrok berehala Santutxuko jaiari hasiera emango diegu. Urte osoan behar-rean eta une honen zain egon gara, baita urte osoan auzoa, lo eta lan egiteko lekua ez ezik, BIZIteko gunea izan dadin borrokatu ere.

BIZI, horrela bizi nahi dugu, letra larritz, kultur, kirol eta aisialdirako ekitaldiak aurkituko ditugun auzoan, umeez jolasteko, dibertitzeko eta harmonian hazteko lokal zein guneak edukiko dituen auzoan, gazteek pentsatzea eta sortzea eragozten duen aisialdiari alternatiba baliagarriak izango dituen auzoan, eta helduek astia era sortzailean eraikitzeke ekitaldi eta lokalak edukiko dituen auzoan.

Atzean laga dugu pertsona talde baten lan urtea, ez soilik Jai Batzordearena, baizik eta egunero eta jai ludiko eta herritarretan, Santutxu, gure auzoa, Bilboko auzoen eredu izan dadin lanean aritzen diren elkarte, giza eta kirol taldeak eta lagunena.

Kontziente izan gaitezen, egun haue-tan ere, auzoak behar dituela jolaserako guneak eta kirol instalazio irekiak eta herritarrek eta oraindik gura dugun auzoa sortzeko borroka luze egin beharko dugula.

Baina ez orain, Santutxuko jaiak, gureak, oraintxe hasiko dira eta.

Jaiak izan beharko dira, batetik, erlajaziorako eta parrandarako, eta bestetik, laguntasuna eta harmoniarako egunak. Jaietan santutxutarrok, kanpotarrek eta etorri ezin direnek ikasi egin behar dugu elakarrekin bizitzeko eta iritzi ezberdinak dituztenekin uler-korragoak eta behar dutenekin solidarioa-goak izaten.




Hitz batean, hauxe espero dugu: jai hauek XX. Mendeko azkenak, ezberdinak, dibertigarrienak, libreenak eta orain arteko osasuntsuenak izan daitezela, eta datorren mendean ohitura onak ez galtzea, hau da, kultura, kirola, alaitasuna eta parrandazale-tasuna.

Santutxutarrok: Jai zoriontsuak!!!

Santutxu Hockey Taldea

ERTZAINTZAREN KARGA

Ertzaintzak Gazte Asanbladaren koadrilaren aurka kargatu zuen uztailearen 8an, Santutxuko jaiak hastear zeudela. Antza, gazteek bengalakaz egin nahi zuten Karmelotik Basarraterako ibilaldia eragotzi nahi izan zuten polizi autonomikoek. Erasoan pelotak jaurti bazituzten ere, handik gutxira lasaitasuna zabaldu zen atzera be Santutxu osotik, Ertzaintzako furgonetak alde egin ostean.



Gure aldizkariaren zenbakion bizkaieraren erabileraren ganerako eztabaidagaz jarraitu gura dogu eta aurreko alean Urtzi Urrutikoetxearen iritziak euki bagenduzan oraingo honetan Mendebaldeko herri hizkerak hainbeste ikertu dauzan Iñaki Gaminderen usteak izango doguz irakurgai. Iñaki Gaminde euskaltzain urgazlea ezeze Mendebaldeko Kultur Alkarteko kide da.

Begoña eta Euskerea


Igor Martin de Vidales

Berton. -Bizkaiko leku askotako herri hizkeraren ganerako hainbat liburu idatzi izan dozuz: Sopela, Bakio, Bilbo,... azkena Zamudiokoa. Zelan ikusten dozu mendebaldeko herri hizkeren etorkizuna?

Mendebaldeko berbeten egoerak sano desbardiak dira, leku batzuetan jendea euskera hutsean bizi da, beste batzuetan, oster, atzen zidurriak baino ez jakuz lotuten, Mendebalde-rengo eskualdeetan, batez bere, euskera bera hil aginean dagoala esan geinke; ha ta guzti bere, ezin hil-kanpaiak jo geinkez, ze sarritan ustebako ederrak hartuten doguz. Esate baterako, bertan Begoñan familia barruko transmisioa ez da oraindino guztiz eten. Azterketa orokorrak ezin egin bageinkez bere, euskerearen beraren egoera orokorrak erabagiko dau bertoko berbetena neurri handian. Mendebaldeko berbeten geroa euskerearen geroagaz batera doalako daukat.

B.- Danok dakigu Begoñako euskeraren egoera zelango eskasa dan. Herri hizkerak galtzeak zelango ondorioak ekarri leikez? Zer egin leike herri hizkerok indartuteko?

Herri berbetak galduteak euskerearen desagertpena



sari askotan ekarten dau, eta beti bere erreferentzia linguistiko kulturalen galtzaia dakar. Euskeraz bizi ahal izateko, esparru guztietan esan gura dot, ez euskera makar eskasagaz korformatako, ereduak behar doguz, horreek ereduok herri berbetak baino ez deuskuetz emoten. Herri berbetak idartuteko, nire ertxiz, lehenengo eta behin dagoken prestigioa emon behar deutsegu eta gero argitu behar dogu zeintzuk diran euron funtzinoak. Beste alde batetik, euskerea beregandu gura dauanari argi esan behar jako euskerearen jaubeak diranak ondo egiten dabela, eta eredugarriak dirala, ikasten dabilanak ikasi behar deutso

dakianari eta ez bestera. Atzen baten, kontzientzia kontua bere bada, hiztun komunitatea sendotu egin behar da eta bertan integratu gura dabenak bertakoena ikasi behar dabe, komunitate paraleloak sortu barik.

B.- Emoten dau hedabideetan bizkaiera gero eta sarriago erabilten dala, hor daukaguz aspaldiko Bizkaia Irratiaren adibidea eta oraintsu Egunkariak ataratako Bizkaia gehigarria. Zer deritsozu Egunkariaren gehigarrian darabilten idazkerari?

Egunkariaren ahalegina guztiz txalogarria da, denborea emon beharko deusagu ereduak eta finkatuteko, kritika zorrotzak egiten hasteko goizetik dala begitanduten jat. Nik neuk ederto deritxet asmoari. Denborea esango deusku onurea ala laskintzea dakarskun. Asko da erakustea egunean-egunean bizkai euskereak idazteko bere balio dauala.

B.- Non ikusten dozu egoki erabiltzea batua eta non euskalkiak eta herri hizkera?

Lehenngoan bertan Urtzik esaneko teoriagaz bat nator, funtzino kontua dala nabarmenduko neuke. Nik neuk eskualdeko berbetan topetan dodaz eguneroko bizimodurako behar dodazan tresna linguistikoak, sentimenduak adierazoteko, bizipenak komuniketako, e.a. Hau da euskeraz bizi ahal izateko tresna linguistikoak eskualdeko berbeteak emoten deustaz. Bizkaiera literarioak beste tresna batzuk emoten ditu, tresnon bidez hauxe berbetaldi hauxe egin nei, idatzi nei esparru batzuetan, tradizionaroko sarbidea emoten deust. Batua, barrez, euskaldun osoa izateko gakoa da, euskal nazino osorako berbetea, danona dana eta nazino mailako funtzioetarako eta kultura eragiteko behar doguna. Euskera batuak, gaurko gizartean, euskaldun oso egin eragiten deusku, baina eguneroko bizimodurako ez da nahikoa; bitzuak behar beharrezkoak dira, bakotxa bere esparruan.

B.- Ados zagoz orrialdeotan erabilten dogun euskeragaz, bestela zer euskera mota erabili beharko genduke, zelan idatzi?

Ni bat etorrita edo etorri ezta, pentzetan dot idazle-ari askatasuna emon behar jakola bere estiloa eta bere gurariak egin ahal izateko. Bakotzak erabagi behar dau unean uneko era aproposa zein dan. Batzuetan batua erabiliko dau, besteetan bizkaiera; gogo-bihotzak aginduten deusken moduan egiten danean, hobeto egiten dana ez dago ukatuterik. Danok izan behar dogu ikasle eta hobetu behar dogu geure egiteko modua, ezpabere, gizakia izateari bere itziko geunskio. Norberak ikusi behar dau, atzenean euskerea danona da eta danon aportazioak behar ditu.

BEGOÑAKO BERBETEAK

- Gaurko atal honetan, erakusleak argitaratuko doguz
- Begoña -Koxi ori mutil ori** (Hartu mutil hori)
- B.-Emen nabil onekas gausokas** (Hemen nabil gauza hauekin)
- B.-Orreik umiok etorri dire** (Horiek umeok etorri dira)
- B.-Aste onetan yoan biot** (Aste honetan joan behar dut)
- B.-Orko erridxen egon nas** (Herri horretan egon naiz)
- B.-Emeko etzien esetu neun** (Etxe honetan ezagutu nuen)
- B.-Emenko erridxen estau eskolarik** (Herri honetan ez dago eskolarik)
- B.-Yoan dire orko bidetik** (Joan dira bide horretatik)
- B.-Berak ekar txus madaridxek baye beran aitek yan txus** (Berak ekarri ditu madariak baina beraren aitak jan ditu)
- B.-Amon tzet dirue berantzat** (Berarentzat dirua eman diot)
- B.-Orreik beti iten deure bardin** (Horiek beti egiten dute berdin)
- Iñaki Gaminderen, Bilbo Berbaz Berba liburitik hartutako esaldiak

Bazkide txartela

Izen deiturak: _____ ENA zenbakia: _____
 Helbidea: _____ Herria: _____ Posta kodea: _____
 Telefonoa: _____ Lanbidea: _____ Jaioteguna: _____



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Iturriaga 55.1 Ezkerria 48004 Bilbo
 Telefonoa: 94.47354.48
 E-posta: asapala@euskalnet.net

Partehartze mota:

- Bazkide soila
 Ekintza jakinetan laguntzaile
 Lantaldeko partaide

Ordainketa:

Kontu korronte bidez
 Asapalaren kontuan
 3035 0071 6 071 105864 2

Kuota korronte bidez

- 500 pta
 1000 pta
 2000 pta
 _____ pta

ZAZPI PROPOSAMEN UDA MAHATSERRIAN EMATEN DUTENENTZAT

Joana Martínez Ortueta

“A ze beroa! Horrenbeste denbora udaren zain eman ondoren urtaro “zoragarria” heldu da, oporrrak, eguraldi ona... eta zertarako? Ni hemen nago, etxe zuloan sartuta, izerdi patxetan eta asper-asper eginda, mundu guztia hemendik kanpo alde egin duenean. Kaka zaharra!”

Horrelako zerbait pasa al zaizu burutik? Lur jota zaude? Nola demontre da posible hori? Zorionekoa zu! Bai, bai, zorionekoa, ondo irakurri duzu. Pentsa ezazu zenbat arazo eta buruhauste ekidin dituzun hemen geldituta: ataskoak, lipotimiak, itxaronaldi amaigabeak aeroportuetan... Lasai, hau irakurri ostean oporrrak hemen pasatzea aukerarik onena irudituko zaizu. Hemen dituzu 7 proposamen paregabe uda alternatibo batez gozatzeko:

1- Hasteko, Etxebarriako parkea “solarium” nudista bihur dezakegu. Zergaitik ez? Urtez urte gero eta jende gehiago animatzen da parkean eguzkia hartzera, hondartzamendia zalantza klasikoari irtenbidea aurkituz: Lorenzo azpian (eeehhhh... gaizki pentsatu gabe, txo) eta belar gainean, gainera Mahatserritik mugitu gabe. Ados, baina... zer deritzozue bainujantzi, bikini edota kamisetek uzten dituzten marka antiestetikoei? Motzak, ezta? Benga ba, arropa eta konplexuak kanpora eta akabo arazoak! Eta bide batez, kolore polita hartzeaz gain oparixto bat emango diogu gure begiei, merezi dute eta.

2- Eta eguzkitan biluzik berotu ostean, pixkat freskatuko bagina? Zer deritzozu ur puxika borroka on bat jokatzeari? Aurrekontu aldetik ez dago arazorik, globoak merke merke edonon saltzen dituzte eta; gainera Mahatserriko edozein txokotan aurkitu daitezke borrokarako leku estrategiko egokiak. Baina kontuz! Argi ibili atso eta agureekin, makilkada bat ez da horren freskagarria eta!



«Etxebarriko parkeko solariumean milaka gorputz kiskaltzen dira lehorreko txitxiburduntzi erraldoian»

Beste barik, artilleria prestatu eta... FUEGO!

3- Goazen beste proposamen batetara: zenbat aldiz sufritu duzu, are gehiago bero honekin, Txurdinagako aldapetan gora zoazela? Eta Txurdinaga aipatu dut, baina plan honetarako berdin berdin balioko dute Otxarkoagako, Uribarriko

zein Begoñako aldapek, horiek behintzat ez ditugu faltan Mahatserrian! Beno, harira: zenbatetan desiratu duzu segundu pare batetan goian egotea ahaleginik egin gabe? Beno ba, oraintxe duzu aukera! Garai honetan trafiko handirik ez dagoela aprobeztatzuz, jantzi irristagailuak, edo asmatu zuk zeuk gurpildun edozein katxarro, karrerilla hartu eta... fiiiuuuuuu!! Atera egizkiezu txinpartak hainbeste sufriarazi dizuten aldapa horiei, hori bai, kaskoa jartzen baduzu hobe, badaezpada ere...



«Zer egin biharamunak jota zauden egun horietan? Hasteko aspirina eta kafe bana hartu, noski! Baina gero...»

4- Aurrekoarekin haizearen kolpea sentituko duzu, noski, baina beste kolperen bat jasotzeko arriskua euki nahi ez duzuenontzat badira sargoria dagoen egun horietan airea pixkat mugiarazteko beste teknika batzuk. Bai, badakigu helburu horrekin sortu zirela abanikoak eta bentiladoreak, baina lehenak ez dira batere erosoak eta bigarrenak berriz, garestitxoak dira agian. Beraz, zer egin?

Hortxe dago gakoa, hain zuzen ere! Beroaz bizi-raun duten neuronak martxan jarri eta asmatu tresna orijinal eta praktikoa bat! Gero Basarraten edo beste edozein plazatan erakusketa bat antolatu daiteke, onena zein den aukeratu... Aizu, agian patentea saldu eta negozio borobila irtetzen zaizu! Horrela izatekotan ez ahaztu gero ideia nork eman zizun, eh? Guk ere jubilatzeke gogoia dugu eta!

5- Beno ongi da... Badakigu batzuek nahiago izaten dutela beroari edanez aurre egitea. Baina lasai, eztarria freskatzeko ere badugu proposamenik, Mahatserrian egiteko modukoa, noski. Nork ez du inoiz “Ruta del Bacalao” delakoari buruz zeozer entzun? Beno ba, holakoak egiteko ez dago urrunegi joan beharrik! Hori bai, plana gure poteo kulturara moldatuko dugu, izen berria ere emanez: zer moduz “Legatzaren bidea”? Agian “Legatza harrapatzeke bidean” litzateke egokiago, Euskaltzaindiak seguruenek euskara garbiagoko “Katua harrapatzeke bidea” gomendatuko liguke eta Bermeon “Melada matxoa atrapatzeke bidea” deituko liokete baina tira...

Kontua da milaka konbinazio burutu daitezkeela: Begoñan hasi eta Boluetan amaitu edo alderantziz, Santutxun hasi eta horko tabernetako botilekin amaitu ostean beste norabide bat hartu... Argi dagoena da bide bat zein bestea aukeratu ez duzula lerro zuzenik jarraituko, ez da ezta kome-ni saiatzea ere. Hori bai, “Legatzaren bidea” amaitzen duenak -ahal izanez gero zutik- sari bat mereziko luke, zorionez ez delako taberna gutxi

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefona:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22



Argazkia: Iñigo Azkona

«Altxor eder bat egon liteke Europa parkeko putzuko hondoan tinkatuta, norbaiten zain».

inguru honetan...

6- Beno, gauza bat behintzat argi dago: aurreko proposamen hori ez dela egunero jarraitzeko modukoa, diruzorroa eta gibela lehertarazi nahi ez baditugu behintzat. Beraz, zer egin biharamunak jota zauden egun horietan? Hasteko aspirina eta kafe bana hartu, noski! Baina gero... nola gainditu asperraldia? Ohean botata pasa behar al duzu egun osoa?

Animo, mugitu ipurdi hori eta zoaz Sorgintxulora zuk beste aje duten lagunekin. Gorputza ez duzue esfortzu gehiegi egiteko moduan izango, are gutxiago burua... Beraz, hobe Trivial edo xakea bezalako joku konplikatuak baztertzea, badaezpadan, eta erabaki oca edo partxis partida batekin hurrengo parrandan nork gonbidatuko duen. Horrela arratsaldea lasai emango duzue eta bide batez, akabo hurrengo jairako betiko ezabaidak. Galtzen duenak lehenengo erronda ordaindu eta listo. Ikusiko duzue zein arin espabilatzen zareten teknika horrekin...

7- Beno, eta gorputza bere onera itzultzen denarako badugu azken plan bat. Honetarako ausardia pixkat behar da, izan ere "arriku kirol" horietako bat dugu hau: "Igering" Europako parkeko putzuan. Bale, badakigu urak ez direla bereziki gardenak eta nahiko txikia dela, baina polikiroldegiko piszinak ere antzeko parezido egoten dira, jendez gainezka tenperatura epel susmagarriko uretan. Beraz ez zaitezte kexatu!

Altxor on bat izkutatu daiteke putzuko hondoan, eta ahateen zaindaritzapean eta betaurreko batzuen laguntzaz aurkitzen duenak saria lortuko du. Animatzen zara? Benga, birikiak puztu eta... barrura!

Hauek izan dira Mahatserrian uda pasatzeko egin daitezkeen gauzatxo batzuk, baina askoz plan gehiago daude! Badakizu hemen zure proposamenak ere entzuteko prest gaudela, gustora gainera. Hori bai, amaitu aurretik ohartxo bat: aldizkari honen egileok ez dugu proposamen hauek jarraitzeak ekar ditzakeen ondorioen ardurarik hartuko, badaezpada ere... Beste barik, aprobe-txa oporrak eta ondo pasa uda honetan!!!

Lanbroa

MESÓN
URETXE

Santutxuko poteo gunean

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!


SAAK

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a


KARMELO ELORRIAGA, MAHATSERRIKO BASERRI GIROA AKORDUAN

Testoa:
Koldo Urrutikoetxea
Hektor Ortega

Argazkiak:
Iñigo Azkona.



Karmelo Elorriaga Arbolantxako bere baserrian bizi da andra Arantzagaz, Otxarkoagako errepide barria baino asago. Baserritar beterano honegaz mahai baten inguruan paratu ginan BERTONekoak orain urte gitxira arte hemengo bizimodua izan zanaren gainean gehiago jakin guran. Haren eskutik Begoñako nekazariak 1939ko gerra ostean zelan bizi izan ziran ezeutu ahal dogu, mahatsorrien akordu kolektiboaren aberasgarri.



B: Zeu urte askotan baserritar moduan bizi izan zara. Zelango beharrak ziren ordukoak?

E: Bueno, orain asko kanbia da. Lehen hemen baserriz bizi zan jendea, bendejean... Frutie asko egon da Arbolantxan, Erriberako plazara eroateko gero. Mallukiak, iderra eta zebolletak be, goizetikoak. Iderra be goizetik egiten zan hemen, ze hemen etxe aurrekoa bastante ezkutuan dago. Hemen atzean jotzen dau gehiago... malluki ta iderra dago goizeko jeneroa. Malluki asko egoten zan eta keriza asko be bai. Okaranak ta ikoak be bai. Ikoak handituta eroaten ziren konfiterira, Santiaguitora eta Jauregira.

B: Eta zelan eroaten zenduezan hemendik hara?

E: Gurdiaz, astoaz, baldekadak. Eta gero hemen egoan gauda, esnerako, eta garia. Gari asko ereiten zen hemen, orain urte asko dala. Hemen sasoiari Santiago inguruan hau etxeruntze dana zabaldua etxolagaz. Ta kamara kargetan ta hirulau harri, harri bakoitzean bi garia jotzen. Urte asko da, eh? Berrogei urte izango dira. Gero artatxoriak be hasten ziren. Dana bandak hor metatan, hogeitau edo. Tiro botatzen zeuntzezan... bueno. Meta gero denbora ona egiten ebanean zabaldu joteko... ta artatxoriez beterik. Garmendiak urte baten gari frantsesa ekarri eban. Heldu hilabete arinago egin eban aurrekoak baino. Ez ei eutsoen itxi gantzurik bez. Trillaute dana! Lehenengoa zan da... Artatxoriak hara danak! Ez eban gehiago erein. Orduan gari asko baina entregau egin behar zan, eh? Kalkulaten eban: zenbat terrenu dakozun ereinda, horrenbeste entrega behar dozu.

B: Entrega nori?

E: Sindikaton entrega behar zan eta gero hortik gora, ez dakit nik, Gobernuari izango zan..., baina entrega behar zan. Eta gero gurea eroaten genduan Erletxesera, errotara, urune egiteko. Ze gariak egiten zen ogie, gure amamak artesa handi batez egiten eban ogi zurie, eta artoaz taloa. Eta egiten gendun aste batean eroan eta hurrengo astean ekarri. Hurrengo astean joaten gintzezan atzera astoaz, saran bakoitzean zorro bat eta ha dena ekarri. Hiru astoz joaten gintzezan. Orduan, ogia be eskas. Ogi ona zan orduan eta gaur jan bez igual. Ogia, talo eta morokila izaten zan, etxeko jeneroaz eginda.

B: Eta plazatik bueltan erosketak eginda ala ez? Astoa bete ekarri igual...

E: Sindikatotik fardo bi galtzu. Orain kamioiez etorten dire. Ura be bai. Iturrie udan siku egoan. Sindikatu aurrean egoan iturria eta handik hartzen genduan. Astoa beti bete. Beheran-

tza esneaz eta gorantza uraz.

B: Astoaz nor joaten zen bendejeaz?

E: Ama. Gu eskolara eta lagunduten esneak entregaten. Ni eskolan Briñasen egon nintzan eta gero Don Brunogaz Iturribiden. Baina eskolara gitxi... beti "itaurren egin behar da!" "Garia erein behar da!" Denbora erdia egon nintzan... Eta neu zaharrena, txarrena.

B: Bizimodu latza izango izango zan, ezta?

E: Buff! Orain bedarra soloan edozein prest dakozu ebagiteko. Orduan basora joan behar zan gero. Loteak hemen hori Guardia Txikerrak egiten ebazan. Okerra zan hori! Ta gero horrek loteok egiten ebezan subastau. Orduan diru piloa! Loterik handiena Urriñagako Antonio eta horrek hartu eban 600 pezetatan Etxarte ganean. Orduan ziran 600 pezeta...! Gurdia asko, eh? Eta gurdiak sartuten itxi ez idiakaz, ...zarratuta alantzeaz... eta kanpora atara behar... Goiko cortafuegogino arrastaka errama baten kanpora atera

behar. Eta pinu bat topaten badozu...

B: Lotea zerezkoa? bedarra?

E: Otea. Eta pagau egin behar. Gaur soloa garbitu egingo dozu eta ez dau inork gure. Eta Lezaman, Viverotik Irolaraino egoan bide bat, errepetidorearen atzekaldean, goizean joaten ziren hara ebagiten hemengo gehienak erdibana egiten... ta ni astoaz joaten nintzen bazkariak, lapiko indadak... eta lapiko dana garbi ekarri ja, ja... Goizetik gabearre. Eta ganaduaz joan ezkerro, igual. Biaje bi egiten gendun egunean. Biaje bat atera, deskargau han eta biajea kargau etorteko hona, aprotxatzeko biajea. Kanterazarran, abioia egon zan lekuan, bide txarra, cada dos por tres gurdia irauli. Atzera ostera be. Lezamagino joan eh? Eta ez hemendik Galbarriatutik be bai joaten zen. Basoko behar hoiak...

B: Ira batzen ibiltzen zineten?

E: Azpigarrirako zan. Azpigarri, behientzat. Eta ona, ona zan satsa egiteko, pinu orria baino hobia. Pinurria garbia baina gogorra zan. Otalatza trillautu eta gero godaña motzagaz, ebagita, azpitan botatzeko. Baina beharra, zelako beharrak!

B: Ganadu asko euki dozue zuek...

E: Lehen ganadu asko zan hemen. Danak ibiltzen ziren esneaz, esnea saltzen zan eta.


B: Ardirik?

E: Ardirik hemen ez. Horrek Manuk difuntuk euki eban dozana erdi.

B: Eta orain?

E: Hiru behi eta bigantxa bi. Esnerako eta okelarako... Eta zaldiak.

B: Auzolana egiten zan baserritarren artean?



E: Lehen bai. Por ejemplo, mahatsa batzen joaten ziren danak ta garia ebagiten ta jotzen be bai danak juntatu. Gaur bateri eta bihar besteri. Ta mahatsa. Mahatsa batzen zan denboretan be, bendimietan, sobre todo txiker asko juntetan zan. Edadekoak be bai baina gazte gazteak koadrilak. Orduan hemen jende asko zan. Orain lau baino ez dagoz.

B: Beharrak amaituta festarik egingo zan, kantuan...

E: Bertsotan be bai. Egin da gero pozik. Hau asko kanbia da. Orain indibidualago da. Orain gauzak egiten ditu ahal dauenak eta puntu. Lehen ez. Lehen igual baso bat zarratzeko, estakak egiten bost edo sei juntetan zan.

B: Mahatsa batzeko alkartu eta hortik Begoñako txakolin famatua urteiten zan...

E: Begoñako txakolina ona zan. Heldu egiten zan ondo hemen. Horrek Bekoetxeok, Agirre, koxiduten eban eskandalue... baina barrika txarrak. Umedadea egoten zan. Sartzen eutsoen orduan metxie txakolinari, buf!, edaten zendun jarro bat ta lokotu egiten zintzan, zoratu ba!

B: Orduan Begoñako txakolina fama ona baina...

E: Ona egiten eban. Martinen aita difuntuek, Meltxorrek, ... Meltxorren txakoline, kuidaio eh? Ona, ona zan.

B: Oraindik lotuten da hemengo mahats klasea?

E: Baina ez da jarri. Delikaue da hemengo lehengo mahats zaharra. Garaik badeko.

B: Gustuak be igual aldatu egin dira...

E: Ez. Gurea Arrankudiagokoa da eta emon dau eskandalue baina ez deko hori... ez deko lehengo... Ta gero gobernau izaten ziren mahatsak orduan... Ze mahatsa berezkoa ez da. Ez da iminten eta... gobernau egin behar da. Ezpabere ez dau balio. Hori Bakioko txakolina, hainbeste kobratuta, niri txakolin horrek ez deust grazirik egiten. Hainbeste Bakio, Bakio, Bakio...

B: Famie badeko gero...

E: Famie bai. Baina Begoñakoa moduan... ez dakit zergaitik baina... askotan diskutidu dogu ta diñoste: Tú por decir no! Baina Meltxor hasi Erramu egunean hasten zan. Erramu egunean hasi ta akabo. Bilboko jendea etorten zan orduko Mercedes ta kristolako autoez... Gero kantidad asko Felipe Madañaga. Horrek asko baina ez kalidade Meltxorren modukoa. Ta Gazteluiturri, Txoriza Santi, Maguregi, ... ez ziren izan hainbesteko txakolina klase honetakoa. Mahatsa ona baina gobernau ez. Barrikie ondo preparatu behar da mahatsentzako, eh? Ezelango zerik badeko...

B: Tolarea etxe guztietan egongo zan, ezta?

E: Hemen egon zan seguru baina ez neban ezetu. Etxe aurrean egon zan zera be bai, labea. Uruna eta taloa egiteko labatik pasa behar zan. Labea zarratu ondo ta behien bekozaz tapa imini, ja, ja...

B: Sagardorik ez da apenas egin hemen...

E: Sagardoa nik hemen... aitak baten edo egin eban. Sagar bi egin ziren. Gero sagarraren azalagaz pitikina egiten zan. Pitikina. Zaborrakaz, ez dakizu? Lagarretik sagarra apurtuten da ta lotuten dana bota barrikara ta hari ure bota. Tapau ta pitikiñe.



B: Pitikiñe? Edateko zelakoa zan hori?

E: Gitxi aguantaten eban, egun bi edo ta pikau egiten zan. Baina goxoa! Ona, ona zan. Ordun denboran, ...

B: Txakolina eta, jendea etorten zen Bilbotik erosten?

E: Guk ez dogu saldu inoiz e? baia Martinen aitek bai, eta Madariagak... Iminten zen errama bat fletxa moduen, non dagoen txakoline, eta ba han dago eta errameari segidu. Ez zan behar periodikurik ez ezebez.

B: Noz egoten zen salgai?

E: Garizuma inguruan hasi eta akabau arte, baina ez eban asko aguentetan. Kuadrilak ibiltzen ziren orduan, bezperatik hasi eta etxera etorri barik egun bi edo hiru be igual. Ermandadeko behien tasadoreak etorten ziren eta Mateo Gandiaga, Etxetxikerrekoa, eta 'atara eik txakoline', eta jarro batetik emon. 'Hau txakoline etxauk ondo, atara eik beste barriketik ea'. 'Ezetz ba!'. Eta ekin eta ekin, eta halango baten, 'atarakotzut ba!'. Eta bertatik lehengo barriketik ekarrita: 'jo, hau beste gauze bat dok!'

B: Bertsolaririk edo egon da hemendik?

E: Hemen bertsolaririk ez. Honek Josu Agirrerren aitak eta anajea txakoliñen gelditu orduan bertsok, baina bertsok eleganteak gero. Ez eizu pentsa, oraingo bertsolariak be ez dira hola-koak egongo. Nik entzunda dekot, nire amamaren aita, bisabueloa, eta Bekoetxen portal handie dago, ta entierri batera joanda korruen parau, eta 'atara eik txakoliñe', eta jarro erdian, bertsotan eta benga. Eta amamak: 'kaguen la letxe, hau da itzela, lo iten be itxi ez!'. Bajaten da segun jotzen deutso ostikoa jarroari eta apurtu jarroa eta danak isil-isilik. Garmendiaren aitek diño: 'Niri egiten deustak hori andriak eta bentanatik botaten dot andria'. Eta besteak esaten deutso: 'Salbaten dok fine dekolako andrie, ostein...' Isilik egon eta danok etxera.

B: Eta Francoren garaian euskera dala eta problemarik euki dozue?

E: Orduen euskeraz kontuz. Eskolan bez ez euskuen itxiten. Bidean berba egiten badozu... Legina, Daniel eta batera ibiltzen gintzezan. Gu hemengoak, gu aldeanuek ba torpeak besteak konparatuta. Eta maisuek esaten eban: 'euskeraz ikusten badozu bidean berari esateko eta kastigie gero!'

B: Hemendik etxeko euskerea egiten da oraindino, ezta?

E: Gero ta gitxiago egiten da. Orain gazteak egiten dabe bai. Gureak euskerea etxekoa deukie.



«Justuguneko erromerira Begoña, Etxebarri eta Zamudioko jendea etorren»

B: Hemen famatua zen Justuguneko erromeria ezta?

E: Lehen bai, orain hasi da atzera eh? Ahiztuta egon da. Hor ermitie egoan goien, hor umeen pabelioia dagoen lekuen, Tapia. Nik enendun ezetu eh? Baina erromerie bai Kuru-biñan landan. Txosna bi edo hiru iminten zan hor, Txurdinagako Balbinak eta Urriñagakok be iminten eben. Etorren ziren aguazilek eta Ayuntamientoko txistulariek.

B: Eta guzti hori ermitie bota eta gero?

E: Bai, saku karrera eta sokatira. Hori zen klasikoa, pintzek sakuen sartuta.

B:Eta hori zelan zan kuadrilen artean edo?

E: Bai. Edo solteru eta ezkonduak edo... Etxebarritik etorten zan jendea, Zamudiotik be bai, eta Begoña guztitik. Orduan San Justo erromeri polite zan, orduan erromeriek asko egoten ziren. Orain danak galdu dire. Beitu San Roke be, nik ezetu dot, han munie dagoena eginda, ha hormie eginda dauena, han kolan jendea. Eta San Antolin.

B:San Antolin mantendu egiten da oraindino ezta?

E: Bai, hor gazteriak mantendu egiten dau bastante ondo.

B:Eta Justugune orain hasi da osteria be?

E: Bai, orain badoa. Ahiztuta egon da hori, ahiztuta. Gero hortik kanbiau eben Marra-geroengana. Han be bastante ona egiten zan urtietan erromerie, baina gero... Gero handik pasatu zen berbenea Lozoñora, eta gero Lozoño itxi eben eta Zizerunen erro-tondea dagoen lekuen, Larratundun imini eben.

B: Hor akabue izen zan orduen?

E: Bai, hainbat urte dire hori galdu zala.

B: Oraingo mezea eta zuen etxaurrean segiduko da egiten edo?

E: Hemen ez dago problemarik.

B:Eta trikitalaria Manolo Legina?

E: Bai, bai, hori pintzetarik izan da, berak bere konture koxi eban ta, firrin-forro, firrin-forro, zeozer euki dau. Zelako grazie, erre-benteu Agur Jauna jotzen, firrin-forro eta zer atarako ete dau hemen? Eta badoa soinu apurtuta dekola eta baina disimulau ondo. Berak berea.

B: Begoñako San Isidro be ezetu dozue ezta?

E: Gazterik eron dot nik San Isidro lepoan. Aitek San Isidoren banderie eroten eban. Oruetako Jose Etxebarria, ni, eta beste bi. Handik bueltie emoten gendun, orduko errebotillo zan lekutik, plazatik bueltie emon. Artoak aitek piperra hazi-lekuen ereiten eban artoak San Isidro egunerako, artoa eta garia. Gero han plazan erromerie egiten zan, aurrekua. Orduan Txelu zan ugazaba, ondo jotzen eban harek e? Orduan zan hau Fausto Lekue, horrek irakatsi eutson Txeluri,

eta hona zan ha, ona.

AURTENGO JUSTUGUNeko ERROMERIA, ABUZTUAREN 5EAN

Otxarkoagako Peña Pa...Ya!k zuzpertia, aurten be azken urteotako joerari segida emonaz, Justuguneko erromeria egingo da. Abuztuaren 4ean, barikua, Tetuaneko landan -Avril mendian- txosna edegiko da musika eta guzti. Hurrengo egunean, goizeko hamaitetan mezea Arbolantxako baserrietan. Ostean armorzua txokolateaz. Ordu erdi beluago mendi martxa Arbolantxatik Tetuanera. Ordubatean bertso saio dotorea iragarrita dago Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Sebastian Lizasoren kontura. Gai jartzaile Zuriñe Iharririk jardungo dau.

Bertsolarien lanaren ostean, hirurak aldera, bazkari herrikoia egingo da han bertan. Bazkalostean, bostetan, mus txapelketari eta herri olgetei emongo jake hasiera. Eta zazpi eta erdietatik aurrera, iluntze alde-ra, erromeria Xibiri taldeagaz.

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

MAHATSERRIKO MERKATARI TXIKIAK, AZNARREN BELDUR

ESPAINIAKO GOBERNUAK AGINDUTAKO ORDUTEGIEN LIBERALIZAZIOAK

DENDAK ITXIAZIKO DITUELA USTE DUTE

Ekainaren hondarretan Madrilako Gobernuak merkatuak liberalizatzeko neurri batzuk hartuko zituela jakinarazi zuen. Dekretu baten bidez, besteak beste, merkataritzaren alorreko ordutegiak "askatu" zituen eta, ondorioz, domeka gehienetan dendak zabalik egon daitezaten bidea ireki zuen. Oraindik gauzatu ez bada ere, Mahatserriko merkatari txikiak Aznarren neurrien beldur dira, ez ete dituen denda txiker gehienak zarratzera kondenatu.

Asko izan dira Estatu espainol osoan zehar dekretu liberalizatzailea gaitzetsiaz ozen entzun diren ahotsak. Hego Euskal Herrian be hainbat izan dira. Gasteizko Gobernuak berak, esate baterako, bere autonomiaren aurkako erasotzat jotzeaz gain, orain arteko egoera aldatzeari oso arriskutsu iritzi zion. Gobernu zein alderdi politikoez gain merkatari txikiek eurek astindu itzela hartuko dutela salatu dute. Mahatserrian be aburu horretakoak dira.

Gure inguruan Txurdinaga, Uribarri, Santutxu eta Otxarkoagako merkatari txikiak dira elkartetan eratuta dagozanak. Geuk Otxarkoagako merkatarien lehendakariarengana jo genuen sektorearen iritzia erabazteko asmoz. Francisco Ramírezek ez du zalantza izpirik. «Otxarkoagako merkatari txikerrek -dio- gainerako auzoetakoek zein Bilbo erdikoez pentsatzen duten bezalaxe pentsatzen dugu: hau aurrera atera ezker denda txikia hondatuko dute».

Ramírezen ustetan, «desabantailan gaude, dana gure kontra dago. Hemen asko eta asko gaude bizimodu xumea ateratzen, beste barik, eta ahal dogun moduan». Baldintza horietan mugitzen direnek «ez dugu konpetitzeko modurik izango ordutegiak askatzen badira, ezin dugulako inor gehiago kontratatu», azaltzen du. «Eta astean zehar sikeran egun batez atsedean hartu behar dugu. Beraz, -ondorioztatzen du- ezin dugu denda zazpi egunez zabalik mantendu».

DEKRETUAREN OSTEAN

Merkatari txikiak ezustean harrapatu ditu oraingoan Aznarren gobernuak. «Sorpresaz hartu gaitu; EAEn ez zela gauzatu pentsatzen genuen», aitortzen du Francisco Ramírezek. Dendariek, hala ere, dekretuaren atzean egon leitekeenaren susmorik badute. «Gobernuaren eta merkatalgune handien jabeen arteko akordioa dagoela ematen du. Merkatalgune horien pisuaren hain astuna izanda eta aldatuta bapatekoa izan dela kontutan hartuta litekeena da», dio Otxarkoagako merkatarien lehendakariak.

Ezustean ez eze, une txarrean harrapatu ditu merkatari txikiak Aznarren dekretuak. Ramírezek azaltzen duenez, «gure sektorea une erabakiorrean dago. Salerosketa sistema berri egokitzeko neurriak abian dira, gure buruak prestatzen ari gara ikastaroen bidez». Horregaitik unearen garrantzia azpimantzen du. «Igoal urte bi bazu problema ez zen hain larria izango, baina orain bai», ziurtatzen du.



Argazkia: Xabi Herrera

«Borrokatu behar dugu. Ez dugu beste barik etsiko»

Ondorioen latza hain begibistakoa izanik -«denda bat zarratzen den bakoitzean famili oso bat kale gorrian gelditzen da»-, Ramírezek borrokaren premia aldarrikatzen du. «Orain itxaroten gagoz ea merkatarien elkarteok zer egin ahal dugun erabakitzeke. Baina borrokatu egin behar dugu, ez dugu beste barik etsiko», iragartzen du. Bezeroengandik be badute zer esperoa hurrengo garaioan. «Kontsumitzaileari hurrean daukan zerbitzua balora dezala esan nahi diogu, etxe ondoko zerbitzu hori ez baitu merkatalgune handietan topatuko», azpimarratzen du Otxarkoagako merkatari honek. «Eta gainera, -borobiltzen du- ez da egia merkatalgune handi horiek kontratazio gehiago egingo dutenik».

OTXARKOAGAKO MERKATARITZA

Otxarkoagan 243 denda dago. Euretarik erdia hostalaritzan dihardute. Tabernak, beraz. Zerbitzuak %2 edo 3 besterik ez dira. Gainerakoak, janaridendak dira, «normalean jubilatze-ar dagozan pertsonen esku». Francisco Ramírez bera, Otxarkoagako merkatarien lehendakaria, harakina da. Guztira denda horiek 12.000 lagun beharrak asetzen ahalegintzen dira.

Baina gainerako auzoetako arazoez gain, Otxarkoagako dendariak badute gehiagorik. Batetik, denda gehienetarako sarbideak urbanizatu barik dagoz, laster batean konponduko badira ere. Bestetik, euren balizko bezerorik onenek, auzoko gazte langileek salerosketa ohiturak aldatu dituzte. Orain beharrean dihardutenek erosketak zapatuetan egiten dituzte merkatalgune handietan. «Orain zapatuaz gain domeka eskaintzen bazaie, akabo gurea», dio Ramírezek. Jubilatuegandik eta Gizarte-kintza zerbitzuetatik bizi direnengandik kontsumo urria espero dutenez, arazo larria daukate begien aurrean Otxarkoagako merkatariak. «Gure auzoak merkataritzaren txikia besterik ez du. Inguruan ez da industriarik ez bestelakorik. Denda txikiak desagertuko balira...».



IAZ BE METROAK BEZEROAK KENDU ZIZKION BILBOBUSARI

HALA ERE AUTOBUSA DA ORAINDIK MAHATSERRIAN GEHIEN ERABILITAKO GARRAIO PUBLIKOA

Iaz be, aurreko urteetan legetxe, Bilbobuseko zerbitzuek bidaiariak galdu zituzten Mahatserriko lerroetan. Uribarri, Otxarkoaga, Santutxu, Txurdinaga, Zurbaran eta Boluetako geltokietan jende gitxiago sartu zen autobusetara. Galdutako bezerook topatzeko metroko sarbidetara jotzea besterik ez dago. Lur azpiko trenak autobusetara joan ez direnak eta oraindik bidaiari gehiago hartu zituen iaz. Horrela, garraio publikoaren erabiltzaile kopurua handiagotu zen 1999an zehar. Hala ere, autobusa da oraindik, jaun eta jabe gure inguruan.



Bizkaiko Garraio Publikoaren arduradunek emandako datuak kontutan hartuta, mahatsorriok gero eta gehiago erabiltzen dugu garraio publikoa. Bilbobus eta Metroaren emaitzak ikusita, 1999an zehar 18.654.000 bidaiari garraiotu zuten Mahatserriko geltokietan gelditzen diren lerroek. Kopuru hori aurreko urtekoa baino altuagoa da, 290.000 lagun gehiago eraman zutela adierazten du eta. Gurean garraio publikoak aurrera egin du, gitxika gitxika bada ere.

Balantze orokorra baikorra izanik be, kopuru horren ostean dagoen errealitatea ezin bazterrean laga. Izan ere, gorakadaren zama osoa Metroari egotzi behar zaio, 1998tik 1999ra 400.000 bidaiari irabazi baititu Mahatserriko hiru geltokietan. Zenbaki hori altuago litzateke Zazpi Kaleetako geltokiko igogailua erabiltzen dutenak kontutan hartuko bagenitu.

Metroa hain artez gorantza doan bitartean, beherantza abailtzen da Bilbobusa. Urterik urte gero eta jende gitxiago egiten du Bilborako osteratxoa zuri eta goriz margotutako autobusotan. 1998an Mahatserriko auzoetako geltokietan gelditzen diren lerroetan 12.283.000 bidaiari zerabilen arren, iaz ehun mila gitxiago izan ziren. Datuok Metroa hasi baino aurreko kopuruetatik asa daude. 1995 urtean Bilbobuseko autobusek 13.350.000en bat bidaiari garraiotu zuten gurean. Nahikoa murriztu da geroztik.

Hala ere, Metroa gailentzen eta Bilbobusa moteltzen ikusten dugun bitartean ezin dugu ahaztu oraindik ere bidaiari gehienak autobusez doazela. Mahatserriko lerroetako 18 milioi bidaiarietatik bi herenak -12

milioi- Bilbobusek garraiotzen ditu. Metroarentzat, ostera, gainerako sei milioiak, hirugarren herena alegia.

METROAREN GERIZPEAN

Bilbobuseko lerro batzuek Metroaren kompetentziarik gordinena jasan dute, euren ibilbideak eta lur azpiko trenarena bardin antzekoa direlako. Ondorioz, erabiltzaile galera handiak sufritu dituzte azken urteotan. Horixe da Santutxutik Plaza Zirkularra, Campuzano plazara eta Hospitalera doazen autobusen kasua. Lehenengo biek 1998tik 1999era bezero kopurua %14 eta %10 jeitsi zitzaizen. Basurtuko hospitalera doan bidaiarien %4,5 galdu zuen.

Galeraren benetako tamainaz jabetzeko 1995ko datuak kontutan hartzea komeni da. Geroztik hona Santutxu-Plaza Zirkular lerroaren bidaiari kopurua %64 murriztu da. Campuzano plazara doanaren beherakada are handiagoa izan da -%67- Hospitalerako lerroa %43,5 jaitsi den bitartean.

Antzeko arrazoiek argi dezakete beste zerbitzu batzuen gainbehera. San Inazio-Txurdinaga lerroak azken bost urteotan %37,5 makaldu da, hein handi batean Metroaren kompetentzia sufritu duelako. Iaz %5 jaitsi zen.

Badira, ostera, bestelako arrazoiak. Izan ere Metroaren gerizan bizi ez diren autobus zerbitzu batzuek beherakada nabarmena pairatu dute azkenaldion. Uribarri eta Erakustazokaren arteko lerroak bidaiarien

%25 galdu du azken bost urteotan. Cascaños eta Errekaldeko polikiroldegia lotzen dituen autobusak iaz %10eko galera euki zuen eta azken bost urteotako %23koa da. Esanguratsua da, berez, hurrengo datu hau. Iaz Bilbobusak Mahatserrian barrena darabiltzan lerro guztiek bezeroak galdu zituzten. Eta Bilbo osoan bi zerbitzu baino ez ziren izan bidaiariak irabazteko gauza. Honek Metroaren eragina ez eze bestelako arrazoi sakonik tartean badela esan gura du.

Hala ere, azken bost urteotan pasajero kopurua handiagotu duten lerroak badira Mahatserrian. Txurdinaga-Zabalburukoak, esate baterako, %4,6 hazi da, iaz galerak euki zituen arren. Eta Zurbaranbarri-Betolatza zerbitzuak %15,4 igo da azken urteotan. Inguruotako beste lerro bat, Zurbaranbarri-Arabella-Atxuri, zeozertxo hobetu du bere erabiltzaile kopurua.


METRO GELTOKIAK

Metro geltokien joera bestelakoa da gurean. Bi gorantza doazen artean, hirugarrena, Basarratekoa, beherantza hasia da, bere kopuruak handiak izanda ere. Basarratek 134.000 bidaiari galdu zuen iaz, orotara 1.579.758 bisitari euki zituen arren. Seguru asko, galera horretako gehiengehiena Santutxuko geltokiaren hazkundek eraman du. 1999an zehar Santutxukoak 380.000 bidaiari gehiago irabazi zituen. Denetara, 3.755.619 izan ziren handik igarotakoak. Arrakastaren oinarrian igogailua-zen zerbitzua dagoela ematen du.

Azkenik, Boluetako geltokia be gorantza doa arrapaldan. Iaz milioitik gora bidaiari jaso zuen lehenengoz. Auzoari ematen dion zerbitzuaz gain Eusko Treneko



geltokiarekiko konexioa dugu arrakastaren erantzule. Lehen Durango edo Gernikarako trenera Atxurira joiazan orain Boluetan daukate hurre-hurrean Metroarekiko loturari esker.



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org



OTXARKOAGAKO SAIHESBIDEA UZTAILAREN 14EAN ZABALDU ZEN EKITALDI OFIZIAL BARIK

Inguruetako auzoek errepide ilegala dela dioten bitartean Diputazioak trafikoari ekarriko dizkion onurak azpimarratzen ditu

Santo Domingoko gaina Ibarsusigaz lotzen duen errepide berria uztailaren 14ean zabaldu zuen Diputazioak. Obrak hasi eta 42 hilabete beluago, 3.000 milioi pezeta gastatu ostean eta egunean 20.000 auto-gidarik erabiliko dutela iragarrita be, ez zen inaugurazio ofizialik egin. Zergaitik? Autobide honen eraikitze lanak birritan geldiarazi dituztelako epaileek, Otxarkoagako auzoek berdegune babestuak inbaditu eta suntsitu direla auzitegian salatu eta gero. Errepidea amaيتuta badago be, auziak bere horretan dirau.

Otxarkoagako saihesbideak onurak ekarriko dizkio Bilboko trafiko astunari. Egunean 20.000 auto zeharkatuko dute batera zein bestera Santo Domingotik zein Ibarsusitik. Adituen esanetan, 3.000 milioi pezeta kostatu duen obra honek Gurutzeta-Malmasin autopista zatian (A-8), Santo Domingoko sarreran eta Zumalakarregi kalean kotxe iladak arinduko ditu nabarmen, azken bietan batez be.

Luzean 2.589 metroko errepide hau Bilbo inguruko sarbide-eraztunaren zati bat besterik ez da. Baina Otxarkoaga aldean berezko esangura hartu duen errepidea da. Batetik, bertako auzo elkarteak -AFO- nabarmendu duenaren ildotik, autobideak inguruneari, baserri aldeari eta oro har bertan bizi diren guztiei eragingo dien kalteak dagoz. Besteak beste, errepidea egiteko zortzi baserri eta 23 etxebizitza bota dituzte lurrera.

Baina batez be, auzoen kritikaren pisua beste alor batean dago. Auzitara eraman duten esparruan hain zuzen. AFO-koek epailearen aurrean salatu zuten, autobidea eraikitze-



ko lanek berdegune gisa babestutako 25.000 metro karratuko eremua okupatu eta suntsitu zuten. Gainera, aretx, arte, makal eta arki bezalako zuhaitz espezie babestuetako ale asko eta asko moztu dituzte obrak egiterakoan. Ekinari babesa ematearren, Otxarkoagako auzoek salatutakoaren arabera, Diputazioak Bilboko Plan Orokorreko mapak "falsifikatu" egin zituen.

Salaketok epaileengana aurkeztu ostean EAeko auzitegi gorenak obrak geldiarazteko agindu zuen birritan. Kasu bietan, ostera, lanak jarraitzeko baimena luzatu zuen epe labur bat betetakoan. Hala ere, auziak bere horretan dirau, epaileek ez baitute oraindik sententziarik plazaratu. Diputazioaren argudioak aintzat hartuko balitu, errepidea legalizat joko luke eta egindakoa dagoenean geldituko litzateke. Auzoiei arrazoia eman ezker, ordea, autobidearen zati batzuk desegin beharko lirateke.

Honexek lako baldintzetan inaugurazio ofizialik ez egiteak berak auziak bizirik dirauela erakusten du argi eta garbi. Zer izango den epaileek erabagiko dute.



URIBARRI ETA ZURBARANERAKO IGOGAILU BERRIA

Uribarri eta Zurbarango auzoek Udaletxe-ko inguruagaz lotuko dituen igogailua estrenatu dute hilean. Uztailaren 3tik erabilgarri dago Zumalakarregiko geltokian -Eusko Tren- altxatzen den igogailua. Berau eraikitzeke 70 milioi pezetako aurrekontua gastatu dute. Orain urte batzuk Eusko Trenek geltoki berria atondu zuenean igogailua kokatzeko egitura prestatu zuten. Baina geroztik proiektua geldirik egon da harik eta Udalak aurten abian jarri duen arte. Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Ibon Aresok (EAJ) esan zuenez, inguruetako auzokideen eskaerari men eginez eraiki dute igogailua. Prezioa 40 pezeta bidaiako izango da baina trenera doazenek musutruk erabili ahalko dute. Lanegunetan ordutegia goizeko sei etatik gaueko hamaikak arte luzatuko den bitartean, jaiegunetan goizeko zazpiak eta laurdenean edegiko da, zarratzeko ordua hamaiketan mantenduko delarik.

GALIZAKO JAI TXURDINAGAKO EUROPA PARKEAN

Uztailaren bigarren asteburuan Txurdinagako Europa parkean Galizako Azokaren bosgarren edizioa egin zuten. Zapatu goiza eta domeka iluntze bitartean gastronomia eta kultura galegoaren hainbat ale jarri ziren bisitarien gozagarri. Besteak beste, lacón, amarratsa, ardaoak, pattarra eta abar luze bat dastatzeko parada eskaini zuen Galizako Azokak. Mingaina astintzeaz gain dantzatzeko, modako bihurtu den gaita entzuteko, zezenakaz olgetako eta meiga bat "xogando as cartas" ezagutzeko biderik be egon zen.


ARTATXAGAN (998 m.) Mañaritik

(A) Durangotik joan ginen Mañariraino eta herri honetako enparantzan utzi genuen kotxea pelotalekua-ren ondoan.

Pelotaleku ondotik errekatxo bat zeharkatuko dugu zubi txiki baten gaineratik. Ondoren ezkerrealdetik abiatuko gara eta eskuin alde-rantz doan pistari jaramonik egin gabe, urgordailua (B) dagoen lekura helduko gara (guzti hau Andra Mari kalea dugu).

Eskumalderetik eta asfaltatutako bidetik igongo gara azken baserrietaraino. Orain pista zabala eta harritsua jarraitzen da. Apur bat aurrerago beste urgordailu bat dago. Pista aurrera segituz laster bitan banatuko da eta guk eskumalderantz eta gorantz doanari ekingo diogu. Korta antzeko bat ikusiko dugu, eta gero Santikurutz basiliza (C) aurretik pasatuko gara. Ondoren, beti goikaldeko pistak hartuz, errekatxo bat zeharkatu beharko dugu. Honez gero eskuin alde-rantz doan edozein pista hartuz, aldapa oso gogorra igo eta gero lepo batetan aurkituko gara (Inungane 700 m.) (D).

Orain pista utzi eta esku-malderantz doan bidexka hartuko dugu harri tartean sartzeko. Ez litzateke erreza izango biderik onena zein den jakitea, baina gure iritzi-izurk jarraitzea izan daiteke egokiena. Gailurreraiara heltzen garenean eskumalderantz joko dugu eta denbora gutxitan Leungane (1009 m) tontorra lortuko dugu. Piska bat jaitsiz laster aurkituko gara Leungane eta Artatxagan tartean dagoen lepoan (E). Hemendik zuzen joango gara gorantz denbora laburrean Artatxagan (998 m) tontorra gaintzeko.



Txartel kutxak hegazkin supersonikoaren antza du.

Guztira bi ordu.

Bidean mota honetako zuhaitzak ikusi genituen:

PINUAK-ELORRI ZURIAK- ELORRI BELTZAK eta PAGOAK.



Gloria Arévalo, zentru txiletarraren arduradunetarik bat, bere aberriaren banderaren ondoan

ZORTZI URTEZ HAIZE TXILETARRAK MAHATSERRIAN

PABLO NERUDA ZENTROAK HEGOAMERIKAKO KULTURA ZABALTZEN DU

Testoa: Iruñe Berro Urrizelki
Argazkiak: Iñigo Azkona

Mahatserrian badugu inguru honetako txiletar guztiak batzen dituen zentroa. Hau da, txiletar zentroa. Beraiei buruz gehiago jakin nahian Gloria Arévalorekin hitz egin genuen, bera izan baita lau urtez bertako lehendakaria, orain elkarteko diruzaina delarik.

Txiletar zentru hau 1992ko otsailean sortu zen kultura bereko pertsonak biltzea helburu zuela eta berehala inskribatu ziren Eusko Jaularitzako lege gordailuan baita Bilboko Udaletxekoan ere, elkarte bezela euren egoera legeztatuz horrela. Elkartearen izenak Txileko kulturak eman duen kultur gizonik ezagunena islatzen du harro: Centro Cultural Chileno Pablo Neruda. Gloria Arévalok funtsean elkartearen helburua horrela laburbiltzen du: txiletar kultura iraunarazi, zuzpertz eta zabaltzea. Eta horretarako elkarte honetako kideak ez dira zer ez dakitela egin ibiltzen, beti darabilte eskuartean proiekturen bat nahiz eta Eusko Jaularitzak diru laguntza duela urte bete kendu zien. Geroztik Santutxun zeukaten lokal barik daude.

Hala ere urtean zehar badituzte zentruaren hastapenetik burutzen dituzten ekintzak eta horiek mantentzen jarraitzen dute. Esaterako abenduan eguberriak Txilen ospatzen diren moduan ospatzen dituzte, otsailean elkartearen urteurrena dela eta jaia egiten dute, udan aisialdirako ibilaldiak antolatzen dituzte eta irailan aste kultural bat egiten dute. Azkenengo hau Txileko independentzia egunarekin batera egin nahi dute, aipatutako eguna irailaren 18an delarik. Aste kultural hau Bilboko Alde Zaharrean ospatzen da, La Bolsa jauregian hain zuzen ere, eta aurtien irailaren 18tik 24ra bitarteko astea izango da.

MUSIKA TALDE ETA GUZTI

Ahal duten heinean solasaldiak eta hitzaldiak antolatzen dituzte baita idazle edo olerkari txiletarren saiok ere. Eta hau guztiau gutxi balitz, musika folklore talde propioa dute, Millantu izenekoa. Millantu hitz maputxe bat da eta "resplandor" da bere esanahia. Talde hau elkarte sortu eta bi urte beranduago eratu zen, 1994ko uztailean hain zuzen ere. Urtean zehar Millantukoek geriatrikoetan jotzen dute dohan, bertan bizi direnei egonaldia alaitzearen eta udan herri eta auzoetako jaietan jotzen dute kontratua-ekin, honela trajeak egiteko eta helduz gero zentruko



"Txileko independentzia eguna kultur aste batez ospatu ohi dute"

kari hontan, horrela euskal idazleen hitzak ere jasotzen zirelarik, euskaraz alegia. Beraz, bizi den inguruan kokatzen jakin duen txiletar zentroaz ari gara, beti ere bere nortasuna ahantzi gabe.

ekintzak ordaintzeko dirua lortuz. Dena den, Millantuk ez du soilik elkartearen alde ekonomiko zuzpertzeko apostua egiten, bere xede nagusia txiletar kultura bere kanta bilduman batu eta berau mantendu, indartu eta zabaltzea da eta.

Hau guztiaz gain txiletar zentrua latinoamerikar etorkinentzat beren egoera legeztatze informatio topagune bat ere bada. Hemengo hiritar legez bizitzeko behar dituzten baimen guztiak lortzen laguntzen diete, baita lana eta etxebizitza topatzen ere. Baina zentro honetatik ez da soilik



kultura txiletarra bultzatzen. Euskal kulturak ere badu lekutxo bat. Eusko Jaularitzak diru laguntza kendu aurretik Cahuin aldizkaria argitaratzen zuten urtero. Hau ere hitz maputxe bat da eta bere esanahia bilera da. Aldizkarian idazle eta olerkari txiletarrek idazten zuten baina esan bezala, euskarak ere bazuen kabida aldiz-

TXILEKO EGOERAZ GALDE EGITEAN...

Gloria Arévaloren esanetan bada garaia Txile normaltasun egoerara bueltatzeko, 150 urtez demokrazian bizi izan zen herrialdeak gai izan behar du berriro ere honetara bueltatzeko eta horretarako Pinochet epaitu beharra dagoela uste du, herriak irabaztea da bere nahia, eta honetaz hitz egiten duenean ahotsa aldatzen zaio.

DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean

ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU
TABERNA
Ricardo Bastida plaza

PPK EUSKARAREN AURKAKO ERASO ORDUA JO DU

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA KALTETU NAHIAN IZETU DU HISTORIAREN INGURUKO EZTABAIDA

Euskararekiko grina gaiztoa sarritan erakutsia bazuen ere, ekainaren hondarretan hasitako eraso orokorrak PPreben benetako asmoak ageri-agerian laga ditu: Aznarren alderdiak euskarazko irakaskuntza jarri du bere misil astunen helmuga gisa. Euskal hiritarrek euskarazko hezkuntzaren alde egindako erabaki sendoa zapuztu guran dabilta. Tolerantzia, askatasuna eta antzeko berba politik hitzetik hortzera darabiltzaten arren, ezin argiago utzi dute euskara bera kriminalizatu behar dutela. Zertarako hori, ez da zail asmatzen.

Ekaina lasai lasai ematen zituen bere azken egunak Real Academia de la Historia deritzon erakunde espainolak plazaratu txostenak bazterrek bortizki harrotu zituenen. Gonzalo Anes historialariak hamazazpi orritan idatzitako azterketa eskuan zuela gogor astindu zituen Galizako -Fragaren agindupeko eskolak!-, Catalunyako eta Hego Euskal Herriko ikastetxeetan erabiltzen diren testu liburu batzuk. Anesek esana, argitalpen horiek ez ei dute Espainia izena aipatu ere egiten, historia lokala indartuaz Espainiako desitxuratzen dute eta, finean, gezurretan dabilta.

Baina Anesek behin berbetan hasita ez zuen gelditu nahi izan eta bere benetako helburua argiro azaldu zuen: «Ikastoletan historiaren ikuspegi murrizta eta alderdikoia irakasten zaie, arrazismoaren aldeko denon loturen aurkako ideia nazionalistetan oinarriturik». Ikastolak ziren, beraz, bere jardunaren benetako helburua. «Racismo y exclusión» gisako gauza motzak irakasten dituztelako hain zuzen.

Anesek berak biharamunean Radio Euskadin xaloki aitortu zuenez, ikastolen gaineko aipamena soberan zegoen, «gure txostenaren helburua ez baitzen lehenengo hezkuntza aztertzea, bigarrena baino». Txostenaren lan esparruaren barruan egon barik be ikastolen aurka jo zuen. Bazterrek nahasten hasiak besterik ez ziren, hala ere. Orduantxe jakin genuen PPK ikastoletan irakasten den historiak ikerketa bat aginduta zeukala eta Enrique Villar - Espainiako Gobernuko ordezkaria



EAEEn- beste bat enkargatua ei dauka. Euskarazko irakaskuntza, oro har, susmopean. Hego Euskal Herriko guraso gehienek, traba guztien gainetik, gero eta modu masiboagoan nahiago duten irakaskuntza eredua, kuarentenan.

Txostenak txosten eta erasoak eraso, Partido Popularrari agindutakoa betetzen duela onartu behar zaio. Izan ere, asko izan dira egunotan 1997ko udazkenean Egin zaharrak argitaratu zuen informazio bat gogora ekarri dutenak. Xabier Arzalluz berak, esate baterako. Garzónnek geroxeago zarratu zuen egunkariak ezagutzera eman zuenez, EAEko eta Catalunyako PPKo buruzagiak elkartuta hurrengo urteetako euren jardunaren ardatz nagusiak irakaskuntzan euskarazko eta katalanezko ereduaren nagusitasuna apurtzea izan behar zuela erabaki zuten. Eta Espainiarekiko loturek indar gehiago hartu behar zutela hezkuntzan. Horretan dihardute, beraz.

Beharbada horregaitik ez zen inolhar harritu aste bi beluago, uztailearen 10ean, PPKo 800 diputadu San Millán de la Cogollan batu eta gazteleraren eta Espainiako Historiaren aldeko aldarria jo zutenean. Gidoi bakarraren eskenak ziren. Eta pelikulak irailen izango du segida. Hasi besterik ez baitu egin.

AKADEMIAREN TXOSTENAREN PASARTEAK:

«Euskal Herriko bigarren hezkuntzako ikastetxeetara ikastoletan hezitako ikasleak iristen dira; ikastoletan, historiaren ikuspegi murrizta eta alderdikoia irakasten zaie, arrazismoaren aldeko eta denon loturen aurkako ideia nazionalistetan oinarriturik. Nafarroan, berriz, ikastoletan eta D ereduko ikastetxe publiko batzuetan, Euskal Herrian erabiltzen diren material berberak erabiltzen dira, euskarazkoak, bai eta irakasleek emandako oharrek eta fitxak ere; hori egiteko, eresuma horretako historiari buruzko materialik ez dagoela argudiatzen dute. Eskuzko material horren berri ez daki Akademiak».

«Espainiazko historia ezin ukatuzkoa da, eta kurrikulumean bere tokia izan behar du, nagusi izan edo ez. Etorrizuneko bide arrazoizkoena, zalantza barik, hauxe da: Espainiako Historia Europako historian eta mundukoan txertatzea. Dena dela, horrek ez du esan nahi Espainiako lurralde bakoitzaren berezitasunak ez direla berariaz landu behar. Tokian tokikoak ere badu bere tokia, baina bere neurrian». «Ezin onartuzkoa da Espainiako historia eta beste esparru eta nazioetakoak aurrez aurre jarritzea».

«Akademiak esan beharra dauka Europako beste herrialde batzuetan ere Espainian bezain utzia dutela historia baina inon ez direla baliatzen iraganaren gaineko ezjakintasunaz gauzak desitxuratze eta kontra egiteko helburu politikoarekin. Eta horixe da Akademiak ezjakintasunari ikusten dion arriskurik handiena: gauzak desitxuratzea eta lis-karrak sortzea dakarrela».

Esan dute...

ELA: «Hau guztia espainiar nazionalismoaren kanpainatsutsu baten barruan ulertu behar da».

Pilar del Castillo, Espainako Hezkuntza ministroa: «Historia desitxuratzen duten testu liburuak egoitea kezkarria da».

Begoña Lasagabaster (EA): «Txosten horrek dioena gezurra da. Gure aurkako kanpaina berri bat da eta horri ere aurre egin behar diogu. Euskal nazionalismoaren aurkako kanpaina, ale berria da hau».

Jose Eugenio Azpiroz (PP): «Txostenak gure susmoak egia direla azaltzen du. Guk hainbat salaketa egin izan ohi ditugu ikastoletan historia ikasgaiaren inguruan dauden desitxurazte gainean».

Ikastolen elkarteak: «Onartezinak dira irizpide politiko eta ideologikoetan oinarritutako akusazio hain larriak; euskara eta euskal irakaskuntza osoaren kontra doaz».

Inaxio Oliveri, EAEko Hezkuntza kontseilaria: «Hau baldin bada Humanitateak aldatzen hasteko bidea, gaizki hasi gara».

Josune Ariztondo (EAJ): «Izen ona kendu nahi diote euskal hezkuntza sistemari».

Arnaldo Otegi (EH): «Espainaren hausnarketa iraingarria da. Guk galdetu behar dugu zer autoritate duten beraiek gure seme-alabei helarazi nahi diegun kulturaren gainean».

Carlos Iturgaitz (PP): «Kezkarria da historia liburuetan euskaldunen Rhaz aritzea. Arraza eta kultura dela-eta gainontzeko espainarrekiko, are europarrekiko, desberdinak garela esaten da. Arrazismo eta xenofobia aurkitu daiteke hainbat liburutan».

Euskal Editoreen elkarteak: «Euskal komunitatearen aurkako eraso da».

Euskal Editoreen elkarteak: «Aspalditik bagenekien ere, beti bezain mingarri gertatu zaigu euskal editoreoi konstatazio bortizta: garaileek soilik daukate historia kontatzeko eskubidea».

Joseba Agirreazkuenaga, euskal historialaria: «Nik Inkisizio gusto edo gogoia ikusten dut honen guztiaren atzetik».

Javier Madrazo (IU): «Euskal hezkuntza sistemaren aurkako eraso garbia da».

Miguel Sanz, Nafarroako lehendakaria: «Hainbat ikastoletako testu liburuetan historia modu distorsionatua irakasten dela dioten frogak badituzte. Ez da historialaria izan behar Akademiak erdietsi dituen ondorioetara iristeko».

EILAS: «Beldur gara batzuek ez ote duten nahi ustez gaindituta zegoen Francoren diktadura garaiko hezkuntza eredu eta egoera politikora itzuli».

Rodolfo Ares (PSOE): «Ikastolek, kasu jakin batzuetan, historia espainararen ikuspegi erabat nazionalista eta partziala emateko saiakerak egin dituzte. Errealitateari lotu behar zaio eta historia gertatu zen bezala kontatu behar da».

Ikasle Abertzaleak: «Espainiar historia ez dela irakasten esatea gezurretan aritzea da. Zoritxarrez Ehko ikastetxeen %80a Madriletik eta Parisetik inposaturiko kurrikuluma irakasten baita. EAEko eta Nafarroako erreferentzi isolatu eta folklorizatu batzuekin osaturik batzutan».

El Mundo egunkari espainolaren editoriala: «Historiaren manipulazioa, bere asmatze hutsa ere bai, nazionalistek sarritan erabilitako trikimailua izan da. Euren erreibindikazioetatik askok legendak eta gezurrak beste oinarriak ez dute».

Antonio Gala, idazle espainola: «Espainia kontzeptuaren indarraren pareko beste kontzeptu bi baino ez dira izan azken mendeetan. «Dela lumagaitik, dela ezpatagaitik»».

José María Marco, historialari espainola: «Akademiaren txostenak ondorio egoki eta zentzuzko batzuk ateratzen ditu. Besteak beste, ezinezkoa dela ez lotzea elkarrekin Euskal Herriko degradazio moral giroa eta euskal gazteei umeetatik txertatutako gorroto eta fanatismoa».

Pedro Antonio Heras, historialari espainola: «Euskal testu liburu batzutan batasun baten gisa deskribatzen da ETBko eguraldi mapa den izaki birtual hori».

Gonzalo Anes: «Beharbada ez da bidezkoa eta egokia izan arrazismoa dagoela esatea. Baina neuk, gutxienez "pintoreskoa" dela esango nuke».

Alfontso Martínez Lizarduikoa, euskal filosofoa: «Espainiarekiko gure diferentziak hain nabarmenak dira, ze Estatuak bere proiektuan euskaldunen integrazioa burutzeko gure kultura eta nortasun ezaugarriak akabatzea nahi dituela».

Manu Montero, EHUko erretorea eta Foro Ermua-ko sortzailea: «Gezurra da ikastoletan arrazismoa bultzatzen dela».

Antonio Campos, Ikastolen elkartekoak: «Gure kezka nagusia da txostenak ikasleen gurasoengan izan dezakeen eragina».

Enrique Villar, Espainiako Gobernuko ordezkaria EAEn: «Ikastoletan irakasten denak eta kale borrokak zer ikusia dute. Kale borrokan izenen %99,9 euskal jatorrikoak dira. Ez dakit zer eragin duen, baina Alier, Aitor eta horrelakoak ugari dira kale borrokan».

Santos Juliá, historialari espainola: «Metodo zientifikoak eskatutako gutxienezko kontua ere baztertu dute alaiki txostena egiterakoan. Akademia beraren kalterako, gero».

Josep Fontana, historialari katalana: «Irakasleak dira klabea. Euren kontzientziaren arabera egiten dute lan. Gatx dute, beraz, irakaskuntza kontrolatzeko, ikasgela bakoitzean polizia bana ipini ezean behintzat». «Akademiak uste du derrigor hari bat egon behar duela, zeina Viriato-artzain-lusitanu-bat zen lelotik hasita eta unidad de destino en lo universal famatutik pasatuta, Juan Carlos Iarengana iritsiko den».



Bilboko Aste Nagusia 2000 ko kartel lehiaketaren irabazle izan zara aurten, zein da zuretzat kartelak duen esanahia?

Orokorrean karteletan gauza asko sartzeari nahi izaten da eta azkenean, ez da posible izaten, kargatuegi geratzen baita. Beraz, argi ikus ez zedin nahi nuen eta ideia hori aurrera eramaten

saiatu nintzen. Kartela Marijaiaren eskuaren sinplifikazio bat da, bera baita niretzat Bilboko jaietako protagonista nagusienetakoa.

Nire ustez, kartelak sinpleagotzen doaz, errekaratuek ez baitute irabazten; adibide aurtengo San Ferminetako kartela dugu. Kartelak sugestiboa izan behar du, pertsona bakoitzak irudimen

Eñaut Etxebarri: «Kartelak sujestiboa izan behar du, bakoitzak bere aldetik zeozer jar dezan»

DISEINUGILE
MAHATSORRIA ASTE
NAGUSIA'2000KO
KARTELAREN EGILEA DA

Testoa: Arrate Díez.

Eñaut Etxebarri mahatsorria da aurtengo Aste Nagusiko kartela diseinatu duena. Horretarako ehundik gora lanen artean lehena izan behar izan zuen. Ideia guztien artean, epaimahaiak santutxuar honek marraztutako esku bitxia euki zuen gustokoen.

bat du eta bakoitzak bere aldetik zeozer jarri behar du.

Hala ere, honek arrisku bat dakar, inork ere ez ikustea zuk benetan diseinatu duzuna.

Egia esan, kartela oso arin prestatu nuen, ez nuelako astirik, berandu nabilen eta ez nuen aldarte handia eman kartela diseinatzen. Kartela amaitutzat

jo nuenean izugarriko tentazioa eduki nuen gauza gehiago sartzeko, baina azken erabakia horrela uztea izan zen.


Bestelako kartel lehiaketetan parte hartu al duzu?

Orain urte batzuk nire anaiarekin batera parte hartu izan dut Santutxu-ko jaietako kartel lehiaketan. Hori ere azken momentuan prestatu genuen eta bigarrenak gelditu ginen. Bestetik, Bilboko jaietakoan parte hartzeko asmoa askotan izan dut eta azkenean animatu nintzen.

Artistak ezagunak izan daitezkan aukera ona iruditzen al zaizkizu horrelako lehiaketak?

Batzuen ustez, Bilboko jaietako kartelak enkargua izan beharko luke, baina nire ustez, herritarragoak izan beharko lirakeke, jende gazteak aukera eduki dezan bere lana aurkezteko. Gainera, aurkezten diren lan asko ume zein gazteek egindakoak izaten dira, ikusi besterik ez dago Catalunya-ko selekzioaren kamiseta 14-15 urteko mutil batek diseinatu duela.

Aurrerantzean lehiaketetan aurkezten



«Kartela amaitutakoan
gauza gehiago
sartzeko tentazioari
eutsi nion»

jarraitzeko asmoa duzu?

Bai, noski. Kartel lehiaketa bat irabaztea ez da Oscar bat irabaztearen modukoa. Gainera diseinu grafikoan aritzen naiz lanean eta oso gustora nago mundu hortan murgildurik. Kartel lehiaketetara aurkezteko intenzioa lehenagotik ere baneukan, eta aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa dut.

Aholkuren bat emango al zenieke euren lanak aurkezteko ausardi nahikorik ez dutenei?

Erreferentzia polita da hamalau urteko gazteek lehiaketan irabazle izatea. Nire kasuan, azken egunean eta korrika prestatu nuen kartela eta horrek ere animatu ahal ditu. Dena dela, ez dezatela oso serio hartu, baina jakin dezaten irabazteko aukera ere bertan dagoela.

Nire ustez, orain teknikoki ondo egiteak garrantzia du, baina ideia on batek edo orijinala izateak ere, asko lagun zaitzake.

Ze hiru hitzekin definituko zenuke zuk diseinatu duzun kartela?

Koloretsua, sinplea, sugerentea

ZURE
PUBLIZITATEA
HEMEN
94 473 54 48



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Biktimganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziariekiko
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y Cooperación con la Justicia

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-
SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - BILBO

Bikoitz
ARROPAK ★
ZILARRA ☾
OPARIAK ★
Part Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

ZURE
PUBLIZITATEA
HEMEN
94 473 54 48

horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Hilabete honetan urduri samar zabilta, ezta? Buruhaustek baztertu eta zoaz bueltaxka bat ematera, on egingo dizu eta.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Horrenbeste parrandarekin jarraituz gero poltsikoak zulatuko zaizkizu. Zaindu gastuak abuztu osoa etxuloan sartuta pasa nahi ez baduzu!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Bikote barik jarraitzen duzula? Nola da posible? Dotorre jarri eta zoaz ehiztara, garai ezin hobea da eta.
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Urtebetetzea dela eta depresioak jota al zaude? Zoaz lagunekin ospatzera eta ahaztu ximurren kontua, gazteegia zara oraindik!!
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Maletak prestatzen omen zabilta oportetan joateko. Ez ahaztu gero laguneri postal bana idazteaz!
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Lelotuta zabilta aspaldi honetan, beroaren erruz ote? Eros ezazu txapea on bat, ea neuronak freskatuta burua arintzen duzun!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Kurtsoan zehar lan nahikoa egin duzu jada, aprobe-txa orain oporraldia segundu bat ere galdu gabe, merezi duzu eta.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Nahiko pipertuta zabilta aspaldi honetan, aalegin-du zaitez humore hori goxotzen, zure ingurukoek eskertuko dizute.
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Zure txisteez ez dute arrakasta handirik zure laguneren artean baina ez etsi, egunen batean lortuko duzu!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Laister dirutza handia lortuko duzu, bazen garaia! Ez ahaztu zorraz kitatzeaz eta gonbida itzazu lagunak, ez zaitez zekena izan.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Garai honetan eta oraindik kolore zuri hori azalean! Ez legoke gaizki solariumera bisitatxo bat egitea, baina kontuz gero, *atxixarratu* barik.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Uda partean eltxoak zure atzetik doazela? Eta non dago arazoa? Odol gozoa duzunaren seinale!

agenda

ASTE NAGUSIA'00KO AGENDA EUSKALDUNA

Abuztuak 19

21:00. Arriaga plaza: Kale antzerkia. Maimur teatroa. "...Saltinbankiak datozela".
23:30. Unamuno plaza: Euskal musika: Ene Bada.
24:00. Gas plaza: Joxe Ripiau eta Tonino Carotone.
24:00. Pergola: Oskorri.

Abuztuak 20

13:00. Santiago plaza: Bertsolariak: Bizkaiko txapeldu-nak.
21:30. Arriaga plaza: Kale antzerkia. Deabru beltzak taldea. "Bikiak".
23:30. Unamuno plaza: Euskal musika: Imuntzo eta Beloki.

Abuztuak 21

13:00. Santiago plaza: Bertsolariak: Gazteak.
20:00. Plaza Barrian hasita: Bertso-triki-kalejira.
23:30. Unamuno plaza: Euskal musika: Txuma Murugarren.

Abuztuak 22

13:00. Santiago plaza: Bertsolariak: Bizkaiko printze-ak.
19:00. Ripako kaia: Ume antzerkia. Hankagorri taldea "Petrikiloak".
23:30. Plaza Barria: Labrit eta Mikel Urdangarin.

Abuztuak 23

14:30. Santiago plaza: Bertso bazkaria. Mañukorta eta Txiplas.
21:00. Arriaga plaza. Kale antzerkia. Chusma Teatro. "Zirkoa".
23:30. Unamuno plaza. Euskal musika tresnen erakus-keta.
24:00. Pergola. Triki gaua (Tapia, Eztanda, Maixa eta Ixiar...).

Abuztuak 24

13:00. Santiago plaza. Bertsolariak. Athletic-Erreala.
21:00. Bilborock aretoa: Umorezko antzerkia. Txamus-kina. "Mohikano antzerkia".
23:30. Unamuno plaza: Euskal musika. Gartxot.

Abuztuak 25

13:00. Santiago plaza. Bertsolariak. Hiru baten kontra.
23:30. Unamuno plaza. Euskal musika. Lau behi.

Abuztuak 26

13:00. Santiago plaza. Bertsolariak. Beteranoak.
19:00. Ripako kaia. Ume antzerkia. Horz muga. "Badum mundua".
23:30. Unamuno plaza. Euskal musika. Alaitz eta Maider.
24:00. Gas plaza. Su ta Gar eta Hamlet.

Abuztuak 27

13:00. Santiago plaza. Bertsolariak. Izarrak.



Aste Nagusia 2000

Pa...Yak baditu alternatibak

Zapatua 19

14etan Konpartsaren argazki ofiziala. 15etan Bazkaria Txosnan 17etan Txupinazoa Plaza Berria

Domeka 20

15etan Txalupa Bazkaria eta Kai poteoa

Astelehena 21

13etan Poteoa trikitrixagaz Bilbo Zaharretik 15etan Bazkaria Txosnan Martitzena 22

13etan Poteoa fanfarregaz 15etan Bazkaria Txosnan

Eguaztena 23

15etan Bazkaria Txosnan 24etan "Gaurik zoroena" Jai sexu-zoragarria

Eguena 24

15etan Bazkaria Txosnan

Barikua 25

9etan Ikurrinari omenaldia Plaza Berrian 12'30etan Poteoa fanfarregaz 15etan Bazkaria Txosnan

Zapatua 26

15etan Konpartsen arteko bazkaria Arenalean

Domeka 27

12'30etan Poteoa fanfarregaz 15etan Bazkaria Txosnan 17etan Urde Zikinen gatazka: Pa...Ya V: Kaskamoñas 18etan Poteoa Gaiteroegaz 23etan Txitxiburduntxi eta edaria dohainik guztientza

